

HERNANI, 2009

HONDAKINAK ATEZ ATE BILTZEKO SISTEMAREN INGURUKO IRITZI ETA JARRERAK



Hernaniko
Udala

[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak



SARRERA

HELBURUA:

Egindako galdeketaren helburua izan da, Hernanin martxan jarriko den atez ate hondakinak biltzeko sistemaren inguruan herritarrek dituzten iritziak eta jarrerak jasotzea.

EGITURA:

- Metodologia oharrak
- Hondakinen kudeaketari buruz
- Atez ateko gaikako bilketaren inguruko informazio maila, iritziak eta jarrerak



METODOLOGIA OHARRAK



METODOLOGIA OHARRAK

FITXA TEKNIKOA (LABURPENA)

Unibertsoa: Hernanin bizi diren 15 urtetik gorako herritarrak (**16.396** lagun).

Lagina: **503** elkarrizketa.

Landa-lana: 2009ko irailaren 30tik urriaren 15era egin dugu. Elkarrizketak telefonoz egin ditugu, euskaraz zein gaztelaniaz, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

Akats tarte: $\pm\%4,4$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=\%50,0$ hipotesirik kontrakoentzat.



HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZ




HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZ

HONDAKINAK BEREIZTEARI BURUZKO OHITURAK

- **Hamarretik bederatzik** adierazi dute etxean sortzen duten hondakinen zati bat gutxienez bereizten dutela.
- Hamarretik batek bakarrik baieztatu du bere etxean *“zabor eta hondakin guztiak batera joaten direla poltsa berean”*

Zabor eta hondakin guztiak batera joaten dira poltsa berean; 10,5




Hondakin batzuk bereizten ditugu ohiko zabor-poltsatik; 89,5



HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZ

HONDAKINAK BEREIZTEARI BURUZKO OHITURAK: ZEGATIAK



- Hiru arrazoi mota azpimarratzen dituzte, batez ere: *ingurumena zaintzeagatik, birziklatzeko edo materialen aprobetxamenduan laguntzeagatik, eta erantzukizunaren zentzuagatik.*




HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZ


KONPOSTAJEA

- **Hamar lagunetatik seik** badakite konposta zer den, eta beste lauk ez dakite

KONPOSTA ZER DEN BADA KITTEN



ADMINISTRATIOAK KONPOSTA EGITEA BULTZATU BEHARKO LUKE




- **Hamarretik ia zortzik** uste dute administrazioak gai organikoen bilketa bereizia bultzatu beharko lukeela, gero konposta bihurtzeko.



HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZ

AUTOKONPOSTAJEA


- Landa-eremukoei eta etxean lur zatiren bat dutenei, aukera izanez gero euren konposta egiteko prest egongo liratekeen galdetu diegu.
- **Hamarretik ia zazpik** baietz erantzun digute, egingo luketela. Beste %17,6k ez lukete egingo eta %13,6k ez dakite



HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZ

ERRAUSTEGIARI BURUZ

- **Gehienek** gaiari buruzko iritzi jakinik ez dutela edo galderari zer erantzun ez dakitela adierazi digute.
- **Herenek zabor-errautegiaren aurkako** iritzia agertu dute.
- Eta beste %14,9k adierazi digute azkenean erabakitzen den kokapenak baldintzatuko duela bere iritzia.
- Aitzitik, hamar lagunetik bat bakarrik (%13,1) agertzen da zabor-errautegiaren alde.




**ATEZ ATEKO
GAIKAKO BILKETA:
INFORMAZIO
MAILA, IRITZIAK
ETA JARRERAK**



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA

SISTEMAZ ZERBAIT ENTZUN DUTEN


- Elkarrizketatuen **%84,2k entzun dute** atez ateko hondakin-bilketari buruz hitz egiten.
- Beste, %15,8k ez dute entzun.



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA

ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA ONA EDO TXARRA DA HERNANIRENTZAT


- Hernaniko herritarren **ia erdiek** (%46,7) uste dute Hernanik atez ateko bilketa-sistema ezartzea gauza ona edo oso ona dela.
- Herenek uste dute (%33,7) txarra edo oso txarra litzakeela.
- Azkenik, hamarretik ia bik (%19,6) ez dakite ona edo txarra izango den.



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA


ATEZ ATEKO SISTEMA EZARRIZ GERO, JARRERA

- ▶▶ **Hiru laurdenek** uste dute moldatuko liratekeela: %37,8 zailtasun handirik gabe eta %36,5 hasieran kostata baina moldatuko liratekeela.
- ▶▶ %19,0k uste dute sistema berrira moldatzea zaila gertatuko litzaiekeela.
- ▶▶ Eta, %6,8ak ez daki.



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA

EZAUGARRI ZEHATZAK: ZINTZILIKATZEKOAK




» **%37,2k ez lukete arazorik** izango zintzilikatzeako atariaren ondoan edo atari barruan ipintzeko, eta beste %13,5ek nolakoak diren ikusi ondoren erabakiko lukete.

» Aitzitik, **%37,6k ez dute nahi** atarian edo atari ondoan zintzilikatzeako ipintzea, eta beste %6,7k atariaren ondoan bai, baina atari barruan jartzea ez dute nahi.



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA

EZAUGARRI ZEHATZAK: ORDUTEGIA (20:30tatik aurrera)



- ▶▶ Proposatutako ordutegia egokia edo oso egokia da elkarrizketatuen **hiru laurdenentzat** (%75,7).
- ▶▶ Erdipurdikoa da %7,0rentzat.
- ▶▶ Eta, desegokia edo oso desegokia dela adierazi digute %12,0k.



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA

KEZKAK ETA BELDURRAK

▶▶ Irekian galdetu diegu hernaniarrei atez ateko bilketa sistema jartzen denerako dituen kezkak eta beldurrak azaltzeko.

▶▶ Hauek nabarmendu dituzte:

❖ Etxeetan hondakinak **pilatuko** direla

❖ **Garbitasunean** antzemango dela (kaleak zikinagoak, usain txarrak, atarietan zintzilikatzekoak jartzen badira usain txarrak izango dira, animaliak ugarituko direla –arratoiak eta eltxoak, batez ere-, etab.)


❖ **Estetikoki** ere ez dela ongi geratuko

▶▶ Azkenik, Hernani bezalako herri handi batean horrelako sistema bat kudeatzea oso zaila edo ezinezkoa izango dela ere esan dute



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA

INFORMAZIO BIDEAK: LEHENESTEN DITUZTEN BIAK



►► Udalak erabil ditzakeen informazio-bideetan bi hauek hobetsi dituzte hernaniarrek:


posta bidezko etxez etxe
gutunak eta
Kronika.



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETA

INFORMAZIO BIDEAK: HERRI BATZAR EDO BILERETAN PARTE HARTZEA

- ▶▶ %22,9 herri batzar edo bileretan parte hartzeko prestutasun osoa agertu dute, eta beste %36,9k agian parte hartuko dutela adierazi dute (%59,8).
- ▶▶ Hamarretik ia lau, berriz, ez daude prest bilera horietan parte hartzeko (%13,9 ziur daude ez dutela parte hartuko, eta beste %22,9k ez dute uste parte hartuko dutenik)



HERNANI, 2009

HONDAKINAK ATEZ ATE BILTZEKO SISTEMAREN INGURUKO IRITZI ETA JARRERAK



Hernaniko
Udala

[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

